

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LAUDIOKO UDALETXEA**

Behin betiko onespena. 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 9/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik

Laudioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 19an egindako ezohiko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 9/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2026ko uztailaren 1eko 74. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez.

Kreditu gehigarriak emateagatik 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 9/2026 espedientearen hasierako onespena jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, espediente hori behin betiko onartu da.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoa betez, aurrekontu aldaketa hori argitaratzen da. Hona hemen, sailkapen ekonomikoaren kapituluaren laburpena:

2026ko AURREKONTUA/PRESUPUESTO 2026**9/2026 KREDITU ALDAKETA****MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 9/2026**

Kredituen Gehikuntza/Créditos adicionales:

KAPITULUAK CAPÍTULOS	AZALPENA CONCEPTO	ZENBATEKOA IMPORTE
6	INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES	180.000,00 €
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA / TOTAL CRÉDITO ADICIONAL		180.000,00 €

Finantzazioa/Financiación:

KAPITULUAK CAPÍTULOS	AZALPENA CONCEPTO	ZENBATEKOA IMPORTE
8	FINANTZA AKTIBOAK/AKTIVOS FINANCIEROS	180.000,00 €
FINANTZIAZIOA GUZTIRA / TOTAL FINANCIACIÓN		180.000,00 €

Ebazpen hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizen, txandaren arabera egokitzen den Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabeteko epea dago, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Laudio, 2026ko uztailaren 28a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ